

ATZERRIKO EUSKAL HERRITARRAK (2019ko urria) Prensa oharra

SARRERA

Ikerketa honen helburua izan da euskal lurraldetik kanpo bizi diren euskal herritarren jarrera eta iritziak ezagutzea beren nortasunari, euskal kulturarekin duten loturari, Euskal Etxeekiko harremanari eta kanpoan den euskal komunitaterako Eusko Jaurlaritzaren programen ezagutza eta balorazioari buruz. Landa lana 2019ko ekainaren 7a eta abuztuaren 30a bitartean egin zen, galdetegi bat helaraziz Eusko Jaurlaritzaren Lehendakartzako Kanpo Harremanetarako idazkaritzarekin lotura duten pertsoneri eta kanpoko euskal herritarrek gehien erabiltzen dituzten informazio atari eta sare sozialetan galdetegia zabalduz.

EZAUGARRIAK

Gehienak Argentinan bizi dira. %20 euskal lurraldean jaio ziren.

Inkesta erantzun duten kanpoko euskal herritarren gehiengoak Argentinan bizi da (%54), %20 Latinoamerikako beste herrialde batzuetan, %10 Europako herrialde desberdinetan, %9 Estatu Batuetan eta Kanadan, %5 Espainian eta %1 Euskal Herrian.

Inkestatuen %20 euskal lurraldean jaio ziren, %19 ez ziren euskal lurraldean jaio baina beren gurasoetako bat behintzat bai, %26ren kasuan euskal lurraldearekiko lotura aurreko belaunalditik dator, aitona-amonaren bat euskal lurraldean jaiotakoa zelako, eta kasuen %33an, lotura urrunagokoa da denboran, lehenagoko arbasoak direlako euskal lurraldean jaiotakoak.

Euskal lurraldean jaiotakoek, batez beste 31,3 urte daramate kanpoan. %15 1960a baino lehenago joan ziren, %16 1960 eta 1979 artean, %21 1980 eta 1999 artean eta heren bat baino gehiago (%35) 2000. urtetik hona joandakoak dira.

Euskal lurraldean jaiotakoek ia heren batek (%31) gaur egun bizi den herrialdean gelditzen asmoa du, %46k uste dute euskal lurraldera itzuliko direla baina ez daude ziur, eta %15ek diote bere egonaldia aldi baterako dela eta euskal lurraldera itzuliko direla.

HIZKUNTZAK ETA NORTASUNA

Euskal nortasun sentimendua oso presente

Inkestatuen %14k ondo dakite euskaraz. %15ek diote euskara izan zutela ama hizkuntza, bakarrik edo beste hizkuntza batekin batera.

Gehienek diote identitate bikoitza sentitzen dutela, euskal herritarra alde batetik eta bizi diren herrialdekoa bestetik. %11 euskal herritarrek bakarrik sentitzen dira, %15 euskal herritarrek bizi diren herrialdekoak baino gehiago, %52 euskal herritarrek bizi diren herrialdekoak bezainbeste, eta %18 bizi diren herrialdekoak euskal herritarrek baino gehiago. %3k bakarrik diote bizi diren herrialdekoak sentitzen direla soilik.

Inor euskal herritartzat hartzeko baldintza nagusiei buruz galdetuta, inkestatuek batez ere aipatzen dute euskal arbasoak izatea (%55ek aipatu dute bi baldintza nagusien artean), euskal herritar sentitzea edo euskal herritar izan nahi izatea (%40), euskaraz hitz egitea (%23), euskal lurraldean jaiotzea (%22) eta euskal abizenak izatea (%20).

Gehien interesatzen zaizkien euskaltasunaren alderdiak dira historia (%44k aipatu dute bi nagusien artean), tradizioak (%42) euskara (%40) eta gastronomia (%19).

Euskaltasunarekiko lotura mantentzeko modu nagusiak dira harreman pertsonalak (bi bide nagusien artean aipatu dute %54k), Euskal Etxeetako ekintzetan parte hartzea (%44) eta albisteak (%34). Pertsona horiek gehienek ohiko harremanak dituzte euskal lurraldean bizi direnekin edo kanpoan bizi diren euskal jatorriko beste batzuekin.

EUSKAL ETXEA ETA KANPOAN DEN EUSKAL KOMUNITATERAKO EUSKO JAURLARITZAREN PROGRAMAK

Programen ezagutza mugatua baina balorazio ona

Inkestatuen %39k diote aktiboki parte hartzen dutela Euskal Etxeren batean eta beste %26 kide dira baina ez dute aktiboki parte hartzen. %35ek ez dute harremanik Euskal Etxeekin.

Inkestatuen %50ek ez dituzte ezagutzen kanpoan den euskal komunitaterako Eusko Jaurlaritzaren programak, %32k pixka bat ezagutzen dituzte eta %18k ondo.

Programa horiek ezagutzen dituztenek oso balorazio ona egiten dute, bereziki Gaztemundu programarena (4,4 puntu 1etik 5erako eskalan) eta Euskara Munduanena (4,4), atzetik datoz premia larriko laguntzak (4,3) eta Euskal Etxeen diru-laguntzak (4,2).

Ikerketaren fitxa teknikoa zabalduko txostenean kontsulta daiteke. Lagina posta eta online bidezko 3.241 elkarrizketa autoadministratuz osatua dago. Informazio bilketa 2019ko ekainaren 7a eta abuztuaren 30a bitartean egin zen.